



## LIBURUA

# Bihotz gogorrarena



## PIRATA BIHOTZA

TESTUA: SÉBASTIEN PEREZ  
ILUSTRAZIOAK: JUSTINE BRAX

Itzulpena: Patxi Zubizarreta  
IBAIZABAL, 2019

### XABIER ETXANIZ ERLE

**E**gile hauek lehendik ere argitaratu izan dute album bat euskaraz, *Herenugeen semea* (Ibaizabal), eta hura bezala hau ere ikusgarria da benetan. Neurri handiko liburu ilustrazioz betea dugu *Pirata bihotza* hau.

Izenburuak iradoki bezala piraten istorioa kontatzen zaigu liburuan, baina Luis pirataren istorioan bada pisu handiko elementu bat, oinarrizko elementua: bihotza. Luisen aita eta aitona piratak izan ziren eta gazte hau, haiek bezala, itsasoan barrena abiatzen da pirata izateko asmoz. Luis arrantzale batzuk lapurtzen hasten da, ondoren itsasontzi bat eta haren eskifaia eskuratuko du... eta handik aurrera ez da bakerik izango Luisen ontzia dabilen itsasoetan.

Luis pirata lanetan arituko da, "Bere

aurretik aitzak bezala, eta lehenago aitona legez... Baina gogor zeukan bihotza", eta horrela liburuko orrietan aurrera egin ahala ikusi ahal izango dugu nola harapatzen dituen altxorak, nola ari den handitzen pirata gaztearen altxorra eta nola lapurtzen dien baita errege-erreginei ere.

Testuak kontakizunaren erritmo bizia islatzen du ("Iparrorratzari begiratu zion. Mendebalderantz zihoan, aitarekin urrunen iritsitako tokietatik aurrerago. Bihotza gogor, gogoa bero"; edo "Harribitxi benetan berezia! Odolaren koloreko errubia. Eguzkia baino distiratsua goa. Eta bihotzaren formakoa"), esaldi laburrek bizitasun hori islatzeaz gain irakurlearen begiek testutik irudietara eramaten dituzte. Azken hauek baitira, neurri batean, liburuaren parterik era-

kargarriena. Handiak, batzuetan orrialde biak betez, Luis gaztearen azalean emaniko aldaketak erakusten dizkigute Justine Braxen ilustrazioek, baita haren baitakoak ere.

Kontatzen duen istorioaz gainera, *Pirata bihotza* hau liburu ikusgarria da objektu gisa, eta hori eskertu egin behar zaio Ibaizabal etxeari. Baina egia da, baita ere, liburuan zehar pirata gaztearen irudi gogorra islatu arren amaieran badela Luisen bihotza hunkitzen duena, arrantzale gazte pobrea, hezur eta azal, nekatua, begiak ilun zituen gaztea. Amaierak hurrengo istorio baten hasiera irudikatuz: "Luisek arrantzale gazteari eskaini zion bere altxorra. Halaxe sortu zuen, azkenean, bere bihotza arintzea. Eta halaxe sortu zen *pirata bihotz zabala*-ren elezaharra". ●